



KUTXABANK EMPLEO.
e.p.s.v.

**ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPEN
MULTIENPRESA ERRENTA FINKO MISTOA
PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIEN
DOKUMENTUA**

**ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPEN MULTIENPRESA ERRENTA FINKO MISTOA
PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIEN DOKUMENTUA****AURKIBIDEA**

1. Definizioa	3
2. Gizarte aurreikuspeneko planaren izena eta modalitatea.	3
3. Gizarte aurreikuspeneko planaren prestazioen arautegia	3
4. Plana barneratzen duen borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundea: identifikazio-datuak eta estatutuak.....	3
5. Bazkide sustatzailea, kudeaketaz arduratzen den erakundea eta Erakundearen gordailuzaina. ..	4
6. Erakundeko gobernu-organoen osaera.	4
7. Erakundeko Kontu-auditorea.....	4
8. Planaren inbertsio-politika eta Erakundearen inbertsio-printzipioen adierazpena	4
9. Gizarte- eta ingurumen-arloko gogoetei eta gogoeta etiko eta inbertsioetako gobernu korporatibokoei buruzko informazioa.....	5
10. Planaren arrisku-maila.....	6
11. Errentagarritasun historikoak eta Planaren helburua	6
12. Errentagarritasun-bermerik ez izatea.....	6
13. Kanpoko berme finantzarioa.	6
14. Administrazio-gastuak eta bitartekaritza-gastuak.....	6
15. Eskubide ekonomikoak ez dira itzuli behar harik eta kobratzeko aukera ematen duten baldintzak izaten ez diren arte.....	7
16. Estalitako kontingentziak.....	7
17. Ekarpenen eta prestazioen arteko bateraezintasunak.....	7
18. Eskubideak aurrez erabiltzea (erreskatea).	7
19. Eskubide ekonomikoen mobilizazioa.....	8
20. Prestazioak: eskabideak eta kobratzeko moduak.	8
21. Etorkizuneko pentsio-eskubideen zenbatespenari buruzko informazioa.	8
22. Erreklamazio-eskariak.....	9
23. Aplikatu beharreko araudia eta zerga-araubidea.....	9
24. Bazkidearentzako funtsezko datuak biltzen dituen dokumentu hau argitaratzen duen webgunea.	10

1. Definizioa.

Nortasun juridiko propiorik gabeko gizarte aurreikuspeneko planak dira ekarpen erregularren eta prestazioen araubidea nahiz erretiro-gertakizunerako eta, hala badagokio, heriotza, mendekotasun, ezintasun iraunkor edo lanerako baliaezintasun, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larrirako eskubidea aitortzeko baldintzak bideratu eta arautzen dituzten kontratu-forma, elkartze-mota, eratzeko ekintza edo araudia barne hartzen dituzten akordioak. Gizarte aurreikuspeneko planak prestazio-arauegietan formalizatzen dira, eta kapitalizazio indibidualen sistema finantzario eta aktuarialak aplikatzen dituzte haiek zehazteko.

2. Gizarte aurreikuspeneko planaren izena eta modalitatea.

Planaren izena "MULTIENPRESA ERRENTA FINKO MISTOA, ENPLEGUKO AURREIKUSPEN SOZIALEKO PLANA" ("**Plana**") da, eta modalitate honetakoa da:

ENPLEGUKOA bezala klasifikatu da, hau da, kide babeslearekin lan edo zerbitzu harremana duten edo izan duten eta arautegiak ezarritako baldintzak betetzen dituzten bazkideen kolektiboek osatzen dute.

Era berean, ekarpen eta prestazioen erregimenari dagokionez, Plana ZEHAZTUTAKO EKARPEN bezala klasifikatu da, bazkideen ekarpena edo kopurua zehazteko modua aurrez zehaztuta baitago, etorkizunean jaso daitekeen prestazio zehatzarekin lotura zuzena eta bat-batekoa izateko beharrik gabe.

3. Gizarte aurreikuspeneko planaren prestazioen arautegia

Bezeroek www.kutxabank.es web-orrian edo Kutxabanken edozein bulegotan eskuragarri daukaten prestazio-arauegietan formalizatzen da plana. Bulegoetan paper-formatuan entregatzea eska daiteke.

4. Plana barneratzen duen borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundea: identifikazio-datuak eta estatutuak.

Plana enpleguko Kutxabank Enplegua gizarte aurreikuspeneko erakundean ("**Erakundea**") dago barneratuta. Donostia (Gipuzkoa), Garibai kalea 15, du helbidea eta Euskadiko BGAE Erregistroan dago erregistratuta 105-G zenbakian eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 550. liburukian, 79. folioan eta VI-2328 orrian.

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearen funtzionamendua zuzentzen duen arau juridikoa Erakundearen estatutuak dira. Bazkideen esku daude www.kutxabank.es web orrian, baita Kutxabanken bulegoetan ere. Bertan, paperean eskatzeko aukera duzu.

5. Bazkide sustatzailea, kudeaketaz arduratzen den erakundea eta Erakundearen gordailuzaina.

Bazkide sustatzailea: Kutxabank, SA, Bilboko (Bizkaia) Diego López de Haro kale Nagusiko, 30-32 zenbakietan helbidea eta A-95.653.077 zenbakiko IFZ dituen eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratuta dagoena 5.226. liburukian, 1. folioan, BI-58.729 orrian eta Espainiako Bankuaren banku eta bankarien Erregistroan, 2095 kode-zenbakiarekin.

Erakunde gordailuzaina: Cecabank, S.A., Madrileko (28.014) Alcalá kaleko, 27. Zenbakian helbidea eta A-86.436.011 zenbakiko IFZ dituen eta Entitate Gordailuzainen Erregistro berezian eta Madrileko Merkatal Erregistroan erregistratuta dagoena, 30.405. liburukian, 57. folioan, 8. Sekzioan, M-547250 orrian, 1. Inskripzioan, eta Espainiako Banku Erregistroan 2.000 kodifikazio zenbakiarekin.

Erakundearen ondarearen kudeaketaz arduratzen den erakundea: Kutxabank Gestión, SGIIC, SAU, Bilboko (Bizkaia), Euskadi plazako 5 zk. (Iberdrola dorrea-27. solairua) eta A-48.267.850 IFZ dituen, eta Baloreen Merkatal Batzorde Nazionalako Inbertsio Kolektiboko Sozietate Kudeatzaileen Erregistroan erregistratuta dagoena 95. zenbakiarekin.

6. Erakundeko gobernu-organoen osaera.

Erakundea honako hauek osatzen dute: batzar nagusiak, borondate soziala adierazten duen organo gorenak, 20 ordezkari osatutakoak, eta gobernu-batzordeak, administrazioaz, zuzendaritzaz eta ordezkari arduratzen den organoak, 8 kidez osatutakoak.

7. Erakundeko Kontu-auditorea.

Erakundearen urteko kontuen auditoretza egiteko ardura duen konpainia Deloitte SL da, Madrilgo Plaza Pablo Ruiz Picasso 1, 28020, helbidea eta B-79.104.469 zenbakidun IFZ dituen. Madrilgo Merkataritza Erregistroan erregistratuta dago.

8. Planaren inbertsio-politika eta Erakundearen inbertsio-printzipioen adierazpena.

Planari atxikitako ondarea bere gizarte-xederako, errentagarritasunerako eta izaerarako egokiak diren segurtasun-, errentagarritasun-, likidezia-, dibertsifikazio-, dispertsio-, diru-kongruentzia eta epe-irizpideen arabera inbertituko da, araudia aplikagarriak finkatutako moduan eta zenbatekoan eta gobernu-batzordeak finkatzen dituen mugen barruan.

Jarraian deskribatuko da Planaren inbertsio-politika:

Errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupena 2 eta 8 urteko tartean kokatuko da. Bestalde, errenta aldagarriaren zatiaren banaketa geografikoa edo merkatua ez dago alde aurretik zehaztuta, momentu bakoitzean bere banaketa erabakitzen duten kudeatzaileak baitira horien inguruko erabakiak hartuko dituztenak, momentu bakoitzeko birbalorazio ikuspuntuak oinarri izanda.

Aktiboen% 10eko gehieneko inbertsio muga euroarena ez den beste moneta batean egindako aktiboetan finkatuko da.

Bazkideek Kutxabanken edozein bulegotan eskura dezakete Erakundearen aktiboen inbertsio estrategikoko politika jasotzen duen Erakundearen inbertsio-printzipioen adierazpen idatzia.

9. Gizarte- eta ingurumen-arloko gogoetei eta gogoeta etiko eta inbertsioetako gobernu korporatibokoei buruzko informazioa.

KUTXABANK ENPLEGUA, BGAE ENPLEGUA-k dio gizarte-, ingurumen- eta gobernu korporatiboaren arloko jardunbide iraunkorrak erabiltzeak aukera ematen diela erakundeei aurrera egiteko, irauteko eta epe luzera errendimenduak maximizatzeko. Horregatik, interesgarria da BGAEk jardunbide horiek kontuan hartzea inbertsioak gauzatzeko orduan, bere bazkideentzako emaitzen kalitate handiagoa lortzeko.

BGAEren inbertsio arduratsuko irizpideak, oro har onartutako nazioarteko arau, hitzarmen eta itunetan oinarritzen dira, batez ere Nazio Batuen Erakundearen esparruan. Testuinguru horretan, BGAEren nahia da bere inbertsioaren xede diren erakundeek honako printzipio hauek betetzea eta sustatzea beren jarduera-esparruetan:

- Giza Eskubideak errespetatzea
- Ingurumena zaintzea
- Gobernu onaren politikak egitea
- Jardunbide egokiak zerga-arloan

Inbertsioak egiteko, jaulkitzailearen ebaluazioa egingo du, kontuan izanik gizarte erantzukizunaren ikuspegitik eginiko inbertsioari buruzko informazio-hornitzaileetatik eratorritako edo munduko erreferentziatzko funts handiek adostutako kanpo uzteak, kanpo uztearen arrazoiak argitaratzen dituztenei eta esparru horretan ibilbide luzea dutenei bereziki erreparatuz, eta betiere kontuan hartuz BGAEren irizpideek erreferentziatzko funts horien irizpideekin duten antzekotasuna edo bat-etortzea.

Politika hori zuzeneko inbertsioaren diru-zorroari (errenta finkoa eta errenta aldakorra) aplikatuko zaio eta, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen bidezko inbertsioan, BGAEk modu kualitatiboan sartuko du gizartearen aurrean erantzulea den inbertsioaren erakunde kudeatzailearen politikari buruzko informazioa inbertsioa aztertzekeo prozesuan.

Printzipio horiek betetzen diren ebaluatzeko, BGAEk aldiro-aldiro aztertuko du inbertsio-zorroek lehen aipatutako irizpideak eta printzipioak betetzen dituzten ala ez.

Inbertsioaren prozesuak kontua izaten ditu inbertsio-erabakiak hartzean dauden jasangarritasun arriskuak. Horretarako, BGAEk inbertitzen duen aktiboen jaulkitzaileek argitaratutako informazioa erreferentzia gisa hartzen du, baita kalifikazio-konpainiek edo BGAEk bere metodologiaren arabera egindako ESG arriskuen ebaluazioa ere.

BGAEk bere arriskueta jasangarritasunaren arriskua barneratzen du, hainbat jarduketa-lerroren bidez: bazterketa-irizpideak, balioztapen-irizpideak, gaietan oinarrituak, gertakari kaltegarrien ebaluazioa eta jabetza aktibo bat gauzatzea.

Inbertsioen jasagarritasun arriskua, besteak beste, jaulkitzaile-motaren, jardueraren sektorearen edo bere kokapen geografikoaren arabera izango da. Era horretan, jasagarritasun arrisku handiagoa duten inbertsioek azpian dauden aktiboen prezioaren murriztapen bat eragin dezakete eta, beraz, BGAEn inbertsio-zorroaren balioari modu negatiboan eragin diezaiokete.

BGAek jasagarritasun alderdiei buruzko erabakiei dagozkien gertakari kaltegarri nagusien analisia barne hartzen du bere prozeduretan, behar adinako arretaren prozesuak barne, materialak edo materialak izan daitezkeenak.

10. Planaren arrisku-maila.

Planaren arrisku-profila ertaina da.

Datu horrek adierazten du Planaren arriskua, eta Planaren ondarea inbertitzea aurreikusten den aktibo-moten portaera historikoan oinarrituta kalkulatu da. Dena den, arrisku-maila denborarekin aldatu egin daitekeen aldagaia dela kontuan hartuta, Planaren etorkizuneko arrisku-profila aurretik epaitzen ez duen neurri estatikoa da adierazlea.

11. Errentagarritasun historikoak eta Planaren helburua.

Urtea	2020	2021	2022
Errentagarritasuna (*)	%3,27	%1,54	%-10,72

(*) Errentagarritasun horrek ez ditu bermatzen eta finkatzen etorkizuneko errentagarritasunak.

2023 errentagarritasunaren zenbatespena (*)	%2,80
----------------------------------------------------	-------

(*) Merkatuen portaeran oinarritutako arrisku mailaren estimazioarekin, eta planaren zorroaren baloraketa irizpideak kontuan izanik, %+/-2 batean merkatuko preziora.

12. Errentagarritasun-bermerik ez izatea.

Plana enplegukoa eta ekarpen zehatzekoa da. Bazkideek egin beharreko ekarpena soilik zehazten da. Plana osatzen duten aktibo finantzarioen errendimenduaren arabera lortzen da errentagarritasuna. Hori dela eta, ez da errentagarritasunik bermatzen eta galerak ere izan daitezke.

13. Kanpoko berme finantzarioa.

Errentagarritasuna lortzea ez dute hirugarrenek bermatzen.

14. Administrazio-gastuak eta bitartekaritza-gastuak.

Planaren administrazio-gastuak planari atxikitako ondarearen % 1,071koak izango dira.

Halaber, 2022eko Abenduaren 31n, balore higigarrien salerosketaren ondoriozko bitartekaritza-gastuen %0,002koa da eta balore horien errotazio-ratioa Planaren ondarearen gaineko %25,11koa.

15. Eskubide ekonomikoak ez dira itzuli behar harik eta kobratzeko aukera ematen duten baldintzak izaten ez diren arte.

Bazkideek ezin dituzte euren eskubide ekonomikoak erabili Planak estalitako kontingentziaren bat betetzen ez bada.

16. Estalitako kontingentziak.

Honako hauek dira prestazioa ematea eragingo luketen Planak estalitako gertakizunak:

- Bazkideak erretiroa hartzea.
- Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna.
- Heriotza.
- Menpekotasuna.
- Iraupen luzeko langabezia.
- Gaixotasun larria.

Planaren prestazioen araudiak prestazioa kobratzeko eskubidea emango luketen gertakizunen erregulazioari buruzko informazio xehatua jasotzen du.

17. Ekarpenen eta prestazioen arteko bateraezintasunak.

Gerta liteke ekarpenak egitea eta aldi berean prestazioak jasotzea bateraezina izatea edo mugapen batzuei lotuta egotea. Kasu horretan, aplikatu beharreko araudian xedatutakoa bete beharko da eta, hala badagokio, Erakundeko estatutuetan eta Planaren prestazioen araudian.

Aldi berean, jubilazio partzialeko egoeran dauden bazkideek, prestazioa jasotzen egon arren, jubilazio osorako aportazioak egiten jarraitu dezakete.

18. Eskubideak aurrez erabiltzea (erreskatea).

Planaren prestazioen araudian aurreikusita dagoen bezala, bazkideek ezin dute aurrez erabili aurreikuspen-planetara egin dituzten eta 10 urtetik gorako antzintasuna duten ekarpenen eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo partzialaren erreskaterik egin.

19. Eskubide ekonomikoen mobilizazioa.

Oro har, bazkide arruntek eta onuradunek gizarte aurreikuspeneko beste plan batera mobilizatu ahal izango dituzte Planeko eskubide ekonomikoak inolako gasturik gabe eta eskubiderik murriztu gabe, betiere bazkide babeslearekiko lan harremanik mantendu ez ezker, eta aplikatu beharreko araudian, Erakundearen estatutuetan eta Planaren prestazioen araudian xedatutakoaren arabera.

Onuradunen kasuan, kontuan izan behar da haien eskubideak gizarte berrikuspeneko beste plan batzuetara mobiliza daitezkeela onuradunak hala eskatzen badu, baina betiere prestazioen berme- eta aseguratze-baldintzek horretarako aukera ematen badute.

20. Prestazioak: eskabideak eta kobratzeko moduak.

Prestazio baten gertakizun erabakigarria gertatzen denean, hura jaso nahi duen bazkide arruntak edo onuradunak erakundearen jakinaren gainean jarriko du, eta prestazioa jasotzeko eskubideari buruz behar den informazioa eta hura egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Aipaturiko agiriak erakundeak aztertuko ditu, eta beharrezkotzat jotzen dituen datu osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Dagokion prestazioa, oro har, diruzkoa izango da eta kapital gisakoa, errenta gisakoa eta mistoa izan daiteke (kapitala-errenta), indarreko araudian, erakundearen estatutuetan eta Planaren prestazioen araudian aurreikusitako aukeren arabera.

Erakundeak araudian aurreikusitako gehieneko epean ordainduko ditu prestazioak, agiri egiaztatzaile guztiak erakundeak aurkezten direnetik kontatzen hasita eta, gertakizuna bazkide arrunt baten heriotza denean, pertsona onuraduna nor den erabakitzen denetik kontatzen hasita.

Prestazioak pertsonalak eta besterenezinak izango dira eta sortu zirenean zuten xedeari lotuta egongo dira estatutuen edo araudien edukiaren arabera, eta indarreko araudiaren edukia bete beharko dute.

Dagokion prestazioa kobratzeko eskubidea ematen duen gertakizuna gertatzen ez den arte, eskubide ekonomikoak ezingo dira enbargatu, ezingo da haien gainean kenketarik, atxikipenik, lagapenik edo konpentsaziorik egin eta ezingo dira kontratu baten berme gisa eratu.

Gertakizuna gertatutakoan enbargoa, oztopo judiziala edo administratiboa baldin badago, epaitegiak edo administrazio eskudunak xedatutakoa bete beharko da.

Heriotza baten kasuan, enbargoa, oztopo judiziala edo administratiboa baldin badago, epaitegiak edo administrazio eskudunak xedatutakoa bete beharko da onuradunei legozkiekeen hondarreko eskubide ekonomikoak jakinarazi baino lehen.

21. Etorkizuneko pentsio-eskubideen zenbatespenari buruzko informazioa.

Bazkideak eskubidea izango du etorkizuneko pentsio-eskubideen zenbatespenari buruzko informazioa lortzeko egindako ekarpenen arabera eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak xedatutakoaren arabera.

Etorkizuneko pentsio-eskubideen zenbatespena bazkideak egindako ekarpenen zenbatekoaz, haien aldizkakotasunaz eta planaren iraupenaren zehar lortutako errentagarritasunen eboluzioaz baldintzatuta dago,

22. Erreklamazio-eskariak.

Bazkide arruntak, onuradunak edo eskubidedunek beren interesekin eta legez aitortutako eskubideekin zerikusia duten kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, gobernu-batzordearen aurrean edo bazkidearen defendatzailearen aurrean, haiek aukeratuta eta erakundearen estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Bazkidearen edo gobernu-batzordearen defendatzailearen erabakia ez da oztopo izango erabateko tutoretza judizialerako eta ez administrazio-kontrolerako eta -berrikuspeneko funtzioen erabilerarako.

Erakundeko bazkidearen defendatzailea Analistas Financieros Internacionales, SA da, Madrilgo Marqués de Villamejor kalean helbidea eta A-78.603.206 zenbakiko IFZ dituen. Madrilgo Merkataritza Erregistroan dago erregistratuta, 8.329. liburukian, 173. folioan eta 79.387 zenbakiko orrian.

23. Aplikatu beharreko araudia eta zerga-araubidea.

23.1 Aplikatu beharreko araudia.

Erakundea eta Plana, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeko Araudia onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan, aplikatu beharreko gainerako arauzko xedapenetan, Entitatearen Estatutuetan eta Planaren prestazioen araudian xedatutakoaren arabera arautzen dira.

23.2 Zerga-araubidea.

Planari aplikatu beharreko zerga-araubidea bazkidearen edo onuradunaren egoitza fiskalean aplikatu beharreko eta indarreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) araudiaren baitan egongo da.

Oro har, egiten diren ekarpenek eskubidea emango dute ekarpen-egilearen PFEZren zerga oinarri orokorra murrizteko, muga kuantitatibo eta kualitatibo jakin batzuei lotuta, bere egoitza fiskalaren arabera aplikatu behar den araudiaren arabera.

Prestazioek, bestalde, heriotzakoak barne, lan errendimendu gisa ordaintzen dituzte zergak. Prestazioaren hartzaileari aplikatu beharreko araudiaren arabera eta prestazioa kapital moduan egiten bada, errendimendua kalkulatzeko orduan murrizketaren bat egiteko aukera egon liteke.

24. Bazkidearentzako funtsezko datuak biltzen dituen dokumentu hau argitaratzen duen webgunea.

Funtsezko datuen dokumentu hau argitaratuta eta eguneratuta argitaratzen duen webgunea www.kutxabank.es da.